

Parisen iragan berri den COP21aren helburua eta garrantzi berezia, 2011n Durban-en erabaki ziren. Kopenhagueko Gailurraren porrotaren ondotik, munduko Estaturu guzietan, hots Nazio Batuen erakundeak, argi baitzuten klima aldaketaren gehiegizko azeleratzearen heina gainditzea saihesteko azken urteetan gaudela, ondoko erabakia hartu zuten: COP21a 2015ean iragan behar zenez, behar zen denbora eta metodoarekin antolatuko zela. Azkenean, nazioarte mailako klimari buruzko akordio anbiziotsu bat izenpe zedin bertan, 2100 epeari begira, klimaren beroketa $+2^{\circ}\text{C}$ etik behera mugatzea ahalbidetuko zuena. Horrek ahalbidetuko zuen klimaren aldaketa ezin kontrolatua eta itzulbiderik gabekoa eraginen zuten hainbat atari-efektu saihestea.

Garaipen diplomatikoa eta porrot klimatikoa:

Badu bi hilabete gailur nagusi hori iragan dela eta zein bilduma egin daiteke? Dudarik gabe Nicolas Hulot-ek du formularik zuzenena eta zintzoena asmatu (planeta babesteko frantziar Errepublikako Presidentearen mandatari berezia zela ikusirik): "*Arlo diplomatikoan, une historikoa da; arlo klimatikoan, ez dugu egoerak behar zuena lortu.*" Horrek ongi laburbiltzen du Pariseko Akordioa, egiazko arrakasta diplomatikoa baina arlo klimatikoan, Gizon-Emazteentzat etorkizun lazgarria berresten duena.

2015 urte osoan zehar, hainbat elementuk jada aurre ikustarazten zuten COP21ak ez zuela bere betebeharra lortuko eta ez zuela klima beroketa $+2^{\circ}\text{C}$ -en petik atxikitzea segurtatuko zuen akordio zuzen eta anbiziotsua lortuko.

1) Hasteko, 2015eko azarotik beretik jakina zen Estatuak beren kabuz aurreratu zituzten berotegi efektuko gasen isurketak murrizteko engaiamenduen batuketak, hots INDCs famatuek, ez zutela ahalbidetuko $+2^{\circ}\text{C}$ -en pean gelditzea eta are gutiago $+1,5^{\circ}\text{C}$ -en pean. Alderantziz, engaiamendu horiek osorik atxikiak eta arduratsuki errespetatuak badira, $+3^{\circ}\text{C}$ ko norabidera eramanez gaituzte! Alta, nahiz eta harrigarria agertu, dramatikoki eskasak diren engaiamendu horiek ezin ziren berriz negoziatu COP21ean.

COP21aren helburuaren eta bere bukaerako eduki errealearen arteko desberdintasun horrek, $+1^{\circ}\text{C}$ -ekoak, ezdeusa iduri badu ere, izugarri handia da errealitatean eta dena aldatzen du. Sinpleki errateko, arazo klimatiko larri baten eta krimen klimatiko baten arteko diferentzia da.

Eman dezagun horrekin harremanik ez duen adibide bat, baina handitasun bera duen fenomeno: jendeen gorputzaren tenperatura 37°C -tan da, gradu bat edo bat eta erdi gehituz gero, oheratzen gaituen sukarra dugu, 3 gradu gehituz, egoera latza da, 5 gradutik gora, hiltzeko arriskua dugu. Gorputzarentzat, 4 edo 5 gradu gehiago ukaitea, ez da beroago izatea, barneko orekak itzulipurdikatzea baizik, heriotzaren heinera hurbilduz.

Lur globoari dagokionez, bere batez-besteko tenperatura 15°C -koa da. $0,85^{\circ}\text{C}$ -ko igotzearekin, sukar ederra hasten da!

Izan ere, 1880 eta 2012 artean izan zen $+0,85^{\circ}\text{C}$ -rekin, hots azken 130 urteetan ezagutu den igotzearekin, gaur egun pairatzen ditugun nahasmendu guztiak sortu ziren: izotzen urtzea, itsasoan igotzea, ozeanoen azidotzea, muturreko gertakari klimatikoaren biderkatzea eta hauen intentsitatea handitzea.

$+1,7^{\circ}\text{C}$ eta $+3^{\circ}\text{C}$ -en artean, jada hasten gara atari-efektuak gainditzen eta horrek anitz larritzen ditu aldaketa klimatikoaren efektuak; ondotik atzera-eraginak ezagutzen dira, hots, aldaketa klimatikoaren ondorioek, aldaketa klimatikoa bera indartzen dutela.

Horren ondorioz, handituz doan eta kontrolaezina den efektua sortzen da, beroketa bera bakarrik elikatzen baita. Horrek erran nahi du badirela erotze eta atzerabiderik gabeko hein edo atariak, eta horrek noski, dena aldatzen du.

2) Egoera are larriagoa da, jakina baitzen engaiamendu horiek ez zirela behargarriak eta beraz, helburuak ez baziren errespetatzen, ez zegoela zigor sistemarik. Erraz uler daiteke, gaur egun diren errealitate politiko eta ekonomikoak kontuan hartuz, jada eskasak diren engaiamendu horiek ez direla gauzatuko, eta egia erran, +3°C-ko norabide arriskutsua baino txarragoa den +4°, +5° edo gehiagoko norabiderantz goazela beharbada.

Hemen ere ongi ulertu behar da zenbaki horien erronka. 5°C-ko tartea, iraganeko izotz-aroaren eta gaur dugun klimaren arteko diferentzia da. Garai hartan ozeanoen maila gaur egun dutena baino 130 metro beheragokoa zen! Eta +5°C-ko aldaketa hori ez da mende batez iragan, baizik eta 10 000 urtetan, garai haietan zenbait milioi gizon-emazte doi-doi zituen planetan, jakinez milaka urte izan zituztela beren bizi baldintzetara egokitzeko ala ez, beste eremuetara migratzeko, etab. Gaur egun, aipatzen dena da, diferentzia hein bera gauzatzekotan dagoela mundu mailako tenperaturen batez-bestearen, baina hemendik 2100 urtera, 7 mila milioi gizon-emazte dituen planetan eta 2050ean 10 mila milioi izanen dituen. Horrelako eskema kontuan hartuz, pentsatzekoa da +2°C-ak 2040 inguruko gaindituak liratekeela. Hots, bihar!

3) Hasieratik jakina zen ere akordio hori 2020a ondoren gauzatzen hasiko dela. Jean Jouzel klimatologoak, IPCC edo Klima aldaketari buruzko gobernu-arteko aditu taldeko buruorde izanak, azaltzen du +3°C-etara bagoazela, ez bada 2020 aitzin ezer adierazgarriarik egiten. Hots, neurri garrantzitsu batzuk hartu behar lirateke oraindik, 2015 eta 2020 artean, baina urrun gaude horretatik.

4) Azkenik, COP21a aitzin jakina zen ere, desafio klimatikoaren arloan garrantzitsuak diren hainbat galdera ez zirela aipatuak ere izanen negoziazio horietan. Haietarik lehena da energia fosilen ustiapen masiboaren jarraipena. Hauen erretzea dago, mundu mailako CO2 isurketen %80aren jatorrian. +2°C-en petik egoteko, Energiaren Nazioarte mailako Agentziaren arabera, lurpean dauden erregai fosilen erreserben bi herenak bertan ustiatu gabe utzi behar lirateke. Zehazkiago errateko, ez da kontsumitu behar gaur egun ezagutzen diren petrolio erreserben herena, gasaren erdia eta ikatzaren %80a. Michael Greenstone, Etxe Zurian ekonomia arduradun izanaren aburuz, gaur egun menperatzen ditugun teknologiek, lurpean dauden erregai fosilen erreserba guztiak ustiatuko bagenu, horrek lur-azaleko tenperaturen batez-bestearen +9°C-ko gorakada ondorioztatuko luke! (Gobernuz Kanpoko Erakunde batzuek +11°C-ko igoera aipatzen dute). Hau da, genozidio klimatikoa. Une berean, energia fosilen ekoizpen eta erabilpenak, 5 aldiz diru-laguntza publiko gehiago lortzen dute energia berriztagarriek baino!

Okerrago, G20eko herriek, batez-beste 70 mila milioiko diru-laguntza esleitzen dute urtero, energia fosilen ustiapenerako (diru-laguntza horiek *Estatu enpresei isurtzen zaizkie, diru-laguntza publiko zuzen gisa, zergetatik at eta banku publiko edo Munduko Bankua bezalako nazioarte mailako instituzioen bidez*). Hots laguntza horiek guztiak, erreserba berriak aurkitzeko dira, gaur egun ditugun erreserbei, erreserba gehiago gehitzeko, jakinez ezagunak diren erreserbak errez gero jada +9°C-etan izanen garela!

Pariseko Akordioak ez du deus erraten energia fosilen arazo horri buruz. Hots, hodietatik ateratzen denaz kezkatzen denaren itxura ematen du -berotegi efektuko gasez- hodi horretan sarrarazten dituenaz arduratu gabe. Pariseko Akordioaren egiazko garrantzia neurtzeko gaitasuna ukaiteko, galdera bakarra egitea aski da: “Zenbat herri atera dira COP21etik erranez “Ez dut ene lur azpian dudun petrolio eta gas guztia ustiatuko” ?”

Koherentzia falta bera aurkitzen da kontuan hartzen bada ez zaiela Pariseko Akordioan aipamen izpirik egiten TIPP (edo Tafta, Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena) edo CETA (Canadarekilakoa) bezalako akordioei. Izan ere, azken hauek mundu mailako ekonomia eta komertzioa are gehiago deslokalizatzea eta desarautzea ahalbidetzen dute eta ondorioz, desarautze klimatikoa larritzen, era berean egoera hori gelditzeko medioak erasotzen dituelarik. Gaur egun Estatu Batuetan gertatzen den gisan : TransCanada enpresak erran baitu 15 mila milioi dolar konpentsazio eskatzen zizkiola estatu batuar administrazioari Keystone XL oliobide erraldoiaren proiektua gelditzea dela medio (kasu hau, klima salbatzeko, gelditu behar diren petrolio arloko proiektu izugarri kutsagarrien sinbolo bilakatua da). Hori egiteko, hain zuzen, Ipar Amerikako Merkataritza Libreko Itunak eskaintzen dituen, inbertsio-egileak babesteko mekanismoak eta merkataritza arbitraiak erabiltzen ditu (Alena edo Nafta).

Profezia auto-gauzatzailea?

Pertsona asko, munduko estatuburu gehienak, baita ingurumen defentsa erakunde batzuk ere poztu dira Pariseko Akordio horrengatik. Zein argudio erabiltzen dute? Pertsona batek oso ongi laburbiltzen ditu eskaini dituen hitzaldi eta elkarrizketetan. Pertsona hau Laurence Tubiana, Laurent Fabiusen taldeko kidea da. Frantses presidentetzako langile nagusia zen COP21 garaian eta ondorioz, Pariseko Akordioaren eragile garrantzitsuenetakoa, klimaren aldeko konpromiso garbia egin duena. Horra haren azalpenetatik atera daitekeena:

Lehen aldiz historian, azkenean nazioarte mailako akordio batera heldu gara klimari dagokionez eta horrek, diagnostiko, helburu eta epemuga batzuk ofizialki planteatzen ditu.

Hori tresna bat bilakatzen da, erreferentzia bat klima aldaketaren aurkako borrokan jarraitu nahi dutenentzat. Ez du arazoa konpontzen baina arazoa konpontzen lagunduko du.

Nahiz eta honen edukiak eta izaerak ez gaituzten asebetetzen eta eskasak diren, klimaren egonkortzearen aldekoek espero zezaketen onena da gaur egun bizi dugun egoera eta indar-harremana ikusirik.

Anbizio handiko helburuak finkatzen ditu, hala nola +1,5°C famatua.

Akordioaren helburuak 5 urtero berriz ikusteko mekanismo erregularrak finkatzen ditu eta berrikuste hau derrigorrez gauzak hobetzeko egin beharko da.

Eta, orokorrean, Pariseko Akordioa profezia auto-gauzatzailea bihurtu behar dugu: karbonorik gabeko mundu batera jotzeko borondate azkar baten adierazlea da. Iraganarekin moztura argia eta energia fosilen amaiera dakarren akordio boluntarista dela gehiago sinetsiz, inbertitzaileengan eta beren aurreikuspenetan eragin handiagoa izanen du. Energia fosilei lotu ereduan inbertitzen dutenei horrela, inbertsioak karbono guti erabiltzen dituzten eruedetarantz berriz orientatzeko gogoia sortuko zaie.

Argudio gehienak onargarriak dira, neurri batean behintzat. Klima mugimenduaren gaur egungo indar-harremana ikusirik, baita jokoan dauden interes ekonomikoak ere, Estatu indartsuenen benetako posizioak, besteak beste Europar Batasunarena berarena, zaila zen, edota ezinezkoa, itxaropen handiagoak ukaitea.

Horrek ez digu funtsezkoena ahantzarazi behar: COP21-ak ez du bere lehen zeregina bete, erran nahi baita klima beroketa + 2°Cen pean mantentzea 2100-era buruz.

Kopenhagueko gailurrean 2009an finkatu 2°C baino anbiziotsuagoa zen 1,5°Cko helburuak -gaur egun askoz zailagoa izaki hau lortzea, garai hartan baino- ez du ezer aldatzen, hau lortzeko baliabideak ez direlako agertzen Akordioan, alderantziz, Akordio horren egiazko edukiak gutienez + 3°C-ra, eta ziur aski askoz gehiagora eramanez gaituelako.

Gauzak hobetzeko berrikuspen mekanismoak izugarrizko lorpena dira eta oso gauza ona lirateke ez balira 2025etik gora bakarrik aplikagarri, erran nahi baita, berantegi atari-efektuak gainditzera garamatzan norabidea alderantzizatzeko.

Eta zalantzak ukan ditzakegu profeziaren izaera auto-gauzatzailearen errealitateaz. Inbertitzaileak dira hain zuzen, Akordio horren benetako edukiak deskodetzen dituzten adituen laguntza lor dezaketenak, eta horri esker ez dituzte, akordioak ematen duen itxura eta egiten dituen promesak besterik gabe sinetsiko.

Pariseko Akordioaren zinezko garrantziaren aurkezpen baikorregi honek engaina edo lokarraraz ditzakeenak aldiz, mundu osoko herritarrak dira. Hauek pentsa dezakete klima salbatua dagoela, mobilizatzeari, erresistitzeari eta zuzen-zuzen kaos klimatikora eramanen gaituen sistema honetatik ateratzeari urgentzia eta garrantzia gutxiago eskaini behar zaiola.

"Ez da bukatu, hastapena baizik ez da!"

Arazo klimatikoaren larrialdiak eta larritasunak, sekula baino gaurkotasun gehiago du. Arazoa konpontzeko, tokian berean eta nazioarte mailan mobilizatzeko behar gorria dago. Okerrena saihesteko, urte batzuk bakarrik gelditzen zaizkigu eta gure gizarteek dena dute irabazteko aldaketa klimatikoari begira aurkituko diren aterabideekin: sor ditzaketen lanpostuen aldetik, osasun publikoaren aldetik, bizitza-kalitatearen alorrean, ingurumenaren arloan, justizia sozialarenean, elkartasunarenean eta abar.

COP21ean eman zen akordioaren edukiari buruz gure ikusmoldea zeinahi izanik ere, gailur hori aitzin egon diren bi urteek ez dizkigute eskuak hutsik utzi, klima orekatzearen aldeko gatazkan. Erronka klimatikoaren larrialdia eta larritasuna sozializatuz joan da gero eta gehiago. 2014ko irailaren 21ean New Yorken iragan zen manifestaldia, Vietnamgo gerlaz geroztik Estatu Batuetan izan den handiena da. Nazioarteko Konfederazio Sindikala, bere hiru lehentasunetatik bat bezala finkatu du klimaren gaia. Francisco Aita Santuaren *Laudato Si* entziklika, bereziki engaiatua da klima eta ekologia gaitan, eta gisa bereko posizio hartzeak izan dira protestanteen eta musulmanen aldetik. *Alternatiba* prozesuak, tokiko inizatiba simple batetik abiatuz, Baionatik, Euskal Herritik, garapen harrigarria izan du, bi urtez 550 000 (bostehun ta berrogeita hamar mila) pertsona ukituz.

2014 eta 2015 urteek, pixkanaka sortarazi dute, kaos klimatikoa saihesteko eraginkorra izan daitekeen ekintza-estrategia. Estrategia hori hiru adarretan bil genezake : lehen adarra lirateke, Alternatibak eta hauek pixkanaka eraikitzen ari diren eredu aldaketa, bigarren adarra, klimaren suntsipenarekin ez kolaboratzea eta energia fosiletatik ateratzea, eta hirugarrenik, mobilizazioak, proiektu klimatizidei erresistentzia eta desobedientzia zibila.

I) Alternatiba prozesuak arrakasta harrigarria lortu du, klimaren gaia, aterabide eta alternatiben ikuspegitik jorratuz. Zein dira gaur berotegi efektuko gasen isurketak apaltzea ahalbidetzen diguten ekimen konkretuak, gure elikadura eta laborantza eredian, kontsumo edo lurralde, ekoizpen eta energia-garraioaren antolaketa ereduetan? Hiritar bakoitzak, kolektibo edo antolakunde bakoitzak, hiri, herri edo lurralde bakoitzak nola azkartu ditzake alternatiba horiek egun eta hemen?

Alternatiba horiek, eredu aldaketaren logikan daude eta erantzun beharreko galdera demokratiko eta sozialak dira, aterabide teknikoak baino gehiago. Eskema orokor berean kokatu behar dira: neurritasuna, energian behar gutiago duten ereduak ukaitea eta berriztagarritasuna eta berrerabilgarritasuna. Adibide bat baizik ez emateko, gakoa ez da gaur egungo auto eta kamioi guziak ordezkatzeko auto eta kamioi elektrikoekin, baizik eta gure ekoizpen eta bizi oldeak birtokiratzea, garraio kolektiboak garatzea eta garraio-molde goxoak garatzea (bizikleta, errepidekoa ez den

garraioa), autokidetzeta eta hutsik dabiltzan kamioiak gutitzea eta azkenik, bideko garraioan gelditzen denarentzat, erregai aldetik askoz neurtuagoak diren ibilgailuak edo jatorri berriztagarria duten elektrizitatearekin dabiltzanak segurtatzea.

Alternatiba horiek lanpostu anitz sortzen dute (bizitegien isolatze termikoa; laborantza industrial, laborantza herrikoira birmoldatzea; banaketa eta birziklatzea; zirkuito laburrak eta birtokiratzea; energia berriztagarri iturriak...) eta harreman soziala ere bai, gure ingurumen eta osasunerako hobekiak direnak. Azkenik, abertzale eta aurrerakoi gisa, gizartearen antolaketaren gure ikuspegitik hurbilago daude, ez hain zentralizatua eta uniformizatua, lurralde autonomoagoekin maila guzietan eta elkartasunezko, partekatze, nortasun kolektibo eta kultura herrikoi, parte-hartzaile eta ez-merkatari logiketan pentsatuak.

Alternatiba Baiona 2013ko urriaren 6an antolatua zen, GIEC edo Klima aldaketari buruzko gobernu-artereko aditu taldeak klima aldaketaz 5. txostena plazaratu eta zenbait egunera, herritarrei gizarte iraunkorrago, zuzenago eta humanoago eraikitzea ahalmentzen duten alternatibak erakusteko. Geroztik, beste 110 Alternatiba antolatu dira, Frantzia -bertan iragan da COP21a -, baina Europako beste herri batzuetan ere. Orotara, 550 000 (bostehun ta berrogoita hamar mila) pertsonatik gorak parte hartu du.

Herritarrek diruztatu duten eta alternatiba horiek erakusten dituen « Demain » filmak, bi hilabetez 500 000 (bostehun mila) erakarri ditu zinemara (Frantzia), eta ikusleen kopurua handitzen doa astez aste.

Gaurko erronka, alternatiba horiek eskalaz aldatzea izanen da, oraindik gutiengo batenak baizik ez direlako eta haien arteko loturak sortzea, dituzten efektuak biderkatzeko, baita mugimendu herritarrekin, sindikatuarekin eta herriekin edo tokiko instituzioekin dituzten loturak ere. Aipatzen dena da errealitatean eragin gehiago ukaitea eta “sistema egiteko” gaitasuna erakustea, klima desorekatzen duen sistema produktibista eta kapitalista honi alternatiba orokor baten aukera sinesgarria eta ikusgarria izan dadin.

2) Energia fosiletatik gibelerat egitearen mugimendua azkarki garatu da azken hiru urteetan, batez ere 350.org (hirurehun ta berrogoita hamar puntu org) eta Divest-Invest-ek bultzaturik. Haien helburua da instituzio publikoak (hiriak, eskualdeak, pentsio funts burujabeak...) edo pribatuak (inbertitze edo funts pentsioak, fundazioak, unibertsitateak, elizak, etab.) konbentzitzea energia fosiletan (petrolio, gasa, ikatza) kokatuak dituzten aktiboak utz ditzaten. 2014ko irailean, energia fosiletatik gibelera egitea erabaki zuten 181 instituziok, orotara 50 miliar euro aktibo ordezkatzen zutenak. 2015eko irailean, bide horretan engaiatuak ziren 400 instituzio eta 2 600 (bi mila ta seihun miliar aktibo). 2015eko abenduaren 2an, COP21a betean, 500 instituzio eta 3 200 miliar euro aktibo ziren.

Gisa bereko kanpainak eraman daitezke norbanakoekin, beren bankuak ikatzean inbertitzen badu, bankua uztera gomitatuz. Iparraldean, Bizi-k lan hori darama duela zenbait urte jada. Lotura egiten da alternatibekin, pertsonak banku etikoaren hautua egiten ahal baitu adibidez Fiare deituarena, edo existitzen diren elkartasunezko aurrezki funtsetan sar daiteke, energia berriztagarria ekoizten duten materialaren diruztatzeko edo laborantzako lurra zaintzeko edo erosteko, Iparraldean I-Ener eta Lurzaindiaren gisan.

3) COP21ak klimaren aldeko mobilizazio masiboen unea izan behar zuen. Azaroaren 13an 130 hil eta Pariseko biztanleriaren zati bat ikaratu zuten atentatu djihadisten ondotik, larrialdi egoerarekin eta manifestatzeko debekuekin, egoera errotik aldatu zen, Parisen bederen.

Alternatibarentzat, mobilizazio estrategiaren % (ehuneko) 90a COP21a aitzin pentsatu eta burutu zen eta ondorioz atentatuek eta larrialdi egoerak gutiago kaltetu dute. Mobilizazio herritarraren une azkarrak izan dira 110 alternatiben herrixkak eta 4 hilabete osoz antolatu den Alternatiba Itzulia.

Alternatiba Itzuliaren heltzean Parisen irailaren 26an eta Alternatiba Pariseren asteburu berean 60 000 pertsona bildu ziren Errepublikako plazan bi egunez. Egiazki, hau izan da klimaren aldeko mobilizaziorik handiena Frantzian 2015ean. Zifrak baino gehiago, momentu azkar horrek gogoak markaturik utzi ditu eta klima mugimendua osatzen duten hainbat alternatiba, borroka eta erresistentzia aitzina ekarri ditu.

Militante belaunaldi berri bat, biziki engaiatua eta biziki deliberatua, sortu eta formatu da Alternatiba prozesu horretan. COP21aren garaian mobilizazio indar handienetarik bat izan da. Ez ditu soilik bere ekimenak mantendu, mundu mailako Alternatiben herrixkaren gisan, baizik eta gobernuak debekatu zituen mobilizazio eta manifestaldiak ordezkatzeko, azaroaren 29an jende kate erraldoi bat eta Eiffel dorrean abenduaren 12an larunbatarekin elkarretaratze handi bat antolatu zituen besteak beste. Interbentzio erregistro berri bat garatu zuen batez ere Action non -Violente COP21 mugimenduaren sortzearekin. Desobedientzia zibileko ekintza ugari gertatu dira COP21a aitzin eta COP21ean, batzuetan ehunka jende mobilizatu. COP21ari bukaera eman zion larrialdi egoera klimatikoa deklaratu eta mundu osoko herri guztiak justizia klimatikoaren alde mobilizatzerantz deitu.

Gaur egun, komenigarri da Pariseko akordioan dauden 1,5°Cko berotzearena bezalakoak diren edukirik gabeko helburuak erabiltzea, inoiz baino zilegitasun gehiago emateko mobilizazioei, borrokari, erresistentziari edo desobedientzia zibilarri eta bortxa-gabeko ekintza determinatuei. Helburu horiek ahalbidetzen dute behar klimatiko egoera aldarrikatzea. Estatuak eta talde ekonomiko handiek ez badituzte helburu horiek errespetatzea ahalbidetzen duten politikak gauzatu, ondorioz herritarrei eta herriei dagokie egitea :

- fracking-a, off shore den petrolio eta gasa, aireportu berriak, AHT bide berriak, etxalde industrial erraldoiak, merkataritza-zentro erraldoiak, laborantza lurren artifizialtzea, etab. bezalako klima suntsitzailak diren azpiegitura eta proiektuei oposizioa biderkatuz.

- enpresa ekonomiko handietan eta bankuetan presioa eginez, beste praktika batzuk, beste ekoizpen molde batzuk, beste inbertsio mota batzuk (eta des-inbertsioak ere) eta birmoldatze sozial eta ekologikoaren arloan hautu argi eta bizkor batzuek aldarrikatu.

- Estatuen gain presio eginez klima-energia trantsizioaren arloan lege anbiziotsu batzuen alde, erregai fosilei emanak zaizkien diru-laguntza publikoak gelditzeko eta horiek birbideratzeko enplegu-klimatikoaren alde, energia arloan neurritasunaren eta elkartasunaren alde eta berriztagarrien garapenaren alde doazen politikei buruz. Estatu mailako eta Europa mailako berotegi efektuko gasen isurketen ttipitzearen engaiamenduen berrikuste bizkor eta anbiziotsu bat eskatu.

- TIPP (Europa eta Amerikako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsiorako Hitzarmena) edo CETA (Canadarekilakoa) bezalako akordioen geldiaraztea saiaturik, desarautze, deslokalizatze politikak geldituz, lanaren eta aberastasunaren partekatzearen alde borrokatuz, hots langabezia eta prekarietatea borrokatzeko eta era berean klima aldaketa saihesten duen molde bakarraren alde borrokatuz.

- Estatuei, eskualdeei eta udalerriei trantsizioaren aldeko neurri indartsuak eskatu, baita lurraldeari lotuak zaizkien trantsizioaren aldeko ikerketa eta planoak ere, desinbertsioaren arloan ekintza zehatzak aldarrikatu baita jada martxan dauden alternatiben aldeko sostengu politikak ere.

Ez da berantegi klimaren borroka irabazteko :

Badira arrazoiak baikor izateko : klima mugimendua duela bizpahiru urte baino azkarragoa da eta azken urte honetan hainbat garaipen zehatz eta garrantzitsu lortu da.

Estatu Batuetan, 2015eko azaroan, Keystone oliobide erraldoiaren proiektuaren aurkako gaitzeko kanpaina herrikoia eta desobedientzia zibileko ekimenak sortu ziren eta Obama presidentek geldiarazi zuen proiektua.

Herbehereetan, 2015eko ekainean, epaitegi batek Estatuari agindu zion bere herriko berotegi gas isurketak gutienez %25ez (ehuneko 25ez) apaltzea 2020ko, 1990koei alderatuz. Ingurumenaren defentsaren aldeko antolakunde batek justiziaren aitzinera eraman zuen salaketaren ondorioa izan da. Pakistan herrialdean, 2015eko irailean, Lahore hiriburuko justizia Gorte Nagusiak, laborari batek eskaturik, « kontseilu klimatikoa » sortzea manatu du, Estatuak klimari buruz hartutako engaiamenduak gauza ditzan segurtatzeko.

Frantzian, presio-kanpaina batek eta desobedientzia zibil ekintzek -Bizi!k sustaturik besteak beste-, munduko banku handienetarik den Société Générale, gibelaraztea lortu dute Alpha Coal proiektu klimatizida Australian egitetik, honen xedea zelarik Galileako haranean sekulako ikatz meategien ustiatzeari bidea irekitzea. Geroztik, beste frantses bankuek proiektu horretan neholako inbertsiorik ez egiteko engaiamendua hartu dute.

Orain Euskal Herri mailakoa da erronka, bai iparraldekoa bai hegoaldekoa: nola gureganatuko dugu munduko Estatu guztiek eta Europar Batasunak bozkatu duten nazioarteko helburua, hots, hemendik 2100 urtera beroketa klimatikoa +1,5 gradupetik mantentzea. Nola egituratu behar dira aldaketa orokorrak eta nola gogoetatu eta abiatu oraindik politikak, birmoldatze sozial eta ekologia alorretan? Nola planifikatu, neurritasuna, efizientzia energetikoa eta energia berriztagarrien garapenaren arloetan? Nola birbideratu inbertsioak proiektu suntsigarrietatik, trantsiziora eta neurri eta enplegu klimatikoetara? Zein lurralde antolaketa, lan eta aberastasunen banaketa politika, bizitegien politika, garraioena, laborantzarena, zein kontsumo zirkuitu eredu, zein politika birziklatze alorrean, konponketa alorrean, hondakinen prebentzio eta kudeaketan?

Nola murgildu oraindik ikuspegi orokor horietan? Nola aitzinarazi horiek? Nolako tresnekin? Zein alternatibarekin? Zein borroka motarekin? Zein oztoporekin?

Urtez urte aspaldidanik hasirik, ELA sindikatua ez d COP 21aren zain egon galdera horiek guztiak agerian ezartzeko eta erantzun kopuru handia ekartzeko. Ondoko urteetan, lasterragotzen eta areagotzen ari den klimaren nahasmenduak, honen lehen ondorioek jada ukitzen gaituztelarik, erantzun horiek gaurkotasunezkoak eta saihestezinak bilakatuko ditu.

Populakuntza aktiboarentzako trantsizio justua, enplegu dezenteak eta kalitatezkoak sortzea, gizonen eta emakumeen eskubideen errespetua, elikadura segurtasuna eta osasun eskubidea Pariseko Akordioaren hitzaurrean baieztatu dira. Baina 1,5 gradu helburua bezalaxe, giza espeziearen aldeko funtsezko borroka honetan, gure engaiamendu erabakigarriak baizik ez du lortuko, oraingoz paperean idatziak dauden xede soilak besterik ez diren hitzak, errealitate bilakaraztea Euskal Herrian eta munduan.